EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
SARRERA - ENTRADA
2014 OTS. FEB. 06
Nº 14936 ZK.
ERREGISTRO OROKORRA/REGISTRO GENERAL

## EUSKO LEGEBILTZARREKO MAHAIARI

Behean sinatzen duten Legebiltzar Taldeek honako **ERDIBIDEKO ZUZENKETA** hau aurkezten diote Legez Besteko Proposamenari, Kutsadura elektromagnetikoari buruz [10/11/02/01/0302]. Horretarako, indarrean dagoen Erregelamenduaz baliatu dira.

## A LA MESA DEL PARLAMENTO VASCO

Los Grupos Parlamentarios abajo firmantes, a tenor de lo establecido en el Reglamento de la Cámara, tienen el honor de presentar la siguiente **ENMIENDA TRANSACCIONAL** a la Proposición No de Ley relativa a la contaminación electromagnética. [10/11/02/01/0302]

### ERDIBIDEKO ZUZENKETA

1. Legebiltzarrak Jaurlaritzari eskatzen dio erregulazio espezifikoa exijitu diezaiola Espainiako Gobernuari. Erregulazio hori Ingurugiro eta Industria Ministerioak egingo du, Erkidego Autonomoekin elkarlanean, eta kontuan izango ditu Europako Kontseiluaren 1815 ebazpenean jasotako gomendioak.

2. Legebiltzarrak honako hau eskatzen dio Jaurlaritzari: erregulazio espezifiko hori ez baldin bada egiten, bidali dezala Lege Proiektua, EAEko irrati-komunikazioko instalazioak arautuko duena. Horretarako, Lege horrek ALARA printzipioa jarraituko du (ahal bezain baxuena izan dadila). Printzipio hori jarraituz, herritarren osasuna ahal beste babestuko du, bereziki sentsibleagoak eta ahulagoak diren kolektiboena.

3. Legebiltzarrak zera eskatzen dio Jaurlaritzari: hirigintza-planifikaziorako instrumentuetan, gehitu ditzala araudian ezarritako kriterioak.

4. Legebiltzarrak jarraian doana eskatzen dio Jaurlaritzari: 2014. urtean zehar,

### ENMIENDA DE TRANSACCIÓN

1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a exigir al Gobierno central una regulación específica elaborada por el Ministerio de Medio Ambiente e Industria en coordinación con las Comunidades Autónomas que tenga en cuenta las recomendaciones recogidas en la resolución 1815 del Consejo de Europa.

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que si no se produce esta regulación específica, remita el Proyecto de Ley para la regulación de las instalaciones de radiocomunicación en la C.A.V. Dicha Ley en base al principio ALARA (tan bajo como sea razonablemente posible) protegerá al máximo la salud de la ciudadanía, especialmente en lo referido a los colectivos sociales más sensibles y vulnerables.

3. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a incorporar los criterios establecidos en la normativa a los instrumentos de planificación urbanística.

4. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a realizar durante el año

ebidentzia epidemiologikoaren jarraipena egin dezala, instalazio horiek herritarren osasunari nola eragiten dieten jakitzeko. Arreta berezia jarriko die, bereziki, sentikortasun handieneko herritarrei.

5. Legebiltzarrak ondorengo hau eskatzen die Jaurlaritzari eta eskumena dute erakundeei: mapa bat ezar dezatela, non jasoko diren egungo esposizio-maila eta esposizio hori gutxitzeko neurri posibleak.

6. Legebiltzarrak ondorengoa eskatzen die eragina duten Jaurlaritzako Sailei, bereziki Osasun, Garapen eta Lehiakortasun, Ingurugiro eta Hezkuntza Sailei: erradiazio elektromagnetikoei buruz herritarrei iristen zaien informazioa beti zorrotza eta orekatua izan dadila.

2014 un seguimiento de la evidencia epidemiológica acerca del impacto que esas instalaciones tienen en la salud de la ciudadanía, con especial atención en las poblaciones de mayor sensibilidad.

5. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco y a las instituciones competentes a establecer un mapa donde se recoja el nivel de exposición actual y las posibles medidas de actuación para minimizar dicha exposición.

6. El Parlamento Vasco insta a los diferentes departamentos del Gobierno Vasco afectados y en especial al de Salud, Desarrollo y Competitividad, Medio Ambiente y Educación para que la información que llega a la ciudadanía sobre las radiaciones electromagnéticas sea siempre rigurosa y equilibrada.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko otsailaren 6an.

GPSV

EAJ-PNV

EH BILDU